



2015ko LATORRIZKO GEHIRU SARIA

Gehitu, Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen Elkartea, Eusko Jaurlaritzak herri-onura aitortua, homofobiaren eta transfobiaren kontra maiatzak 17an ospatzen den Nazioarteko eguna dela eta, bere homofobiarengatik nabarmendu den

JOSÉ IGNACIO MUNILLA MONSINOREA Donostiako Gotzainari,

GEHITUREN 2015 LATORRI SARIA ematea erabaki du, egin duen eliza-ibilbide luzean barrena entzun dizkiogun iruzkin, pentsamendu eta ideia homofoboengatik, “SEXO CON ALMA Y CUERPO” bere azken argitalpenean jaso dituen moduan, eta hain zuzen ere, lan honen bitartez erantzun bat eman nahi die “gazte asko kezkatzen dituzten galdera ugari”, eta inolako erreparorik gabe ziurtatzen du **“horrelakoak gaiztakeria larritzat jotzen dituen Eskritura Santuan oinarrituta, Tradizioak beti aitortu izan duela jarduera homosexualak berez neurrigabeak direla”, eta homosexualek, jarduera horietan, “ezin dutela onespentik jaso, inola ere”.**

Halaber adierazten du homosexualek **“desbiderapen neurotikoa”** jasaten dutela edo **“Generoaren ideologia eta sexu-iraultza manipulatzeko modu garbi bat direla”.**

Adierazpen kontserbadore, dogmatiko eta erreakzionario horien bidez Munilla gotzainak gizartearen aurreiritzia eta homofobia elikatzen du, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari entzungor egiten dio eta aniztasunaren eta berdintasunaren alde elkarrekin egiten duten lana gutxiesten du.